

Izenburua: Esteroide anabolizanteak: Goi mailako kirol alorretik gimnasioetara ^{*1}

Egilea: Victor Agulló Calatayud (Soziologia eta Giza Antropologiako Saila. Universitat de València. Espainia).

Lehenik eta behin eskertu nahiko nuke *Les Rencontres de Biarritz 2013 -Colloque Européen et International Toxicomanies Hépatites SIDA (THS)*-ko antolatzaileek eta Bizia entitateak, gaurkoan *Addictions comportementales*-aren ardatz inguruan gindako esteroide anabolizanteen aisiako kontsumoari buruzko lanarekin parte hartzeko, gonbidapena luzatu izana.

¹ Testu hau *El consum recreatiu d'esteroides anabolitzants: una perspectiva sociològica- Recreational anabolic steroids consumption: a sociological perspective*, Ph.D. thesis, (2013) València: Universitat de València, tesi internazionalen dago oinarrituta.

I. Sarrera

Nire mintzaldiaren helburua aisiako esteroide anabolizanteen kontsumitzailearen erradiografia soziologikoa aurkeztea da, oinarrian izan daitezkeen faktore eta ezaugarri sozial arriskugarriak atzematen lagunduko digun gogoarekin, etorkizunean fenomeno honen aurkako ekintza prebentiboak burutu ahal izateko.

Europako, Espainiako edo Valentziako esparruetan gazte populazioaren baitan ematen den esteroide anabolizanteen kontsumoaren patroia edo hedakuntzari buruz dagoen ikerketa eza alde batetik, eta aisiako kontsumitzailearen profilararen bereizgarritze minimoen falta bestetik, esteroide anabolizanteen kontsumoa, drogen kontsumoaren logika kulturalaren baitan, azterketa-parametro teoriko eta metodologiko sakonagoak erabiliz ikertzeko eragin ninduten funtsezko bi faktoreak izan ziren.

Esteroide anabolizanteen kontsumoaren problemari ikuspegi sozioantropologikotik heltzen zaio, batez ere ikerkuntza metodo kualitatiboak erabiliz. Gazteenen artean ematen den esteroideen erabilerari buruzko aztertze datuak sortzeko beharra da metodologia hau aukeratzeko arrazoia, jokaera horiek azaltzen dituzten faktore soziokulturalak ulertzen saiatzeko eta horretarako, kontzeptu-taldean, azterketen eta datuen etengabeko pilaketaren antolaketari dagokionez, joan-etorriko dinamika duen hurreratze induktibotik abiatuz.

Aisiako esteroide anabolizanteen kontsumoa Zientzia Sozialen ikuspegitik gutxitan aztertutako gaia dela jakinda, kontzeptu mugaketa batekin, hau da, zertaz ari garen argituz hasi nahiko nuke. Esteroide anabolizanteak laborategietan sortutako substantziak dira, eta testosteronak, gizonezkoen hormona naturalak, dauzkan efektu berdintsuak dituzte, aldi berean efektu anabolizante (hazkunde gihar-eskeletikoa) eta androgenikoak (gizonezkoen ezaugarri sexualen garapena) eraginez, bere osagarri kimikoen araberan eragin bat edo bestea nagusituz. Kiroletan horiek, gihar-masa, indar fisikoa eta neke-erresistentzia handitzeko helburuarekin erabiltzen dira, kirolariak entrenamenduei eta lehiaketei gogorrago ekinez.

Hazken hamarkadetan, mota honetako substantzien kontsumoak sekulako gorakada izan du, zenbait ikerketa, kontsumitutako kopurua haztearen eta aukerako substantzia berriak agertzearen lekuko izan direlarik. Hala eta guztiz ere, 15 urtetik hona, esteroide anabolizanteen kontsumoa kirol esparrutik harago joan da, aisiako helburua duten kontsumo patroiei hurbilduz.

Victor Agulló Calatayud. Esteroide anabolizanteak: Goi mailako kirol alorretik gimnasioetara.

Populazio orokorrean eman den kontsumoaren sekulako hazkuntzari, kontsumitzen hasteko adina geroz eta txikiagoa dela gehitu behar zaio. Haien arriskugarritasun pertzepzio baxua, erosteko erraztasuna eta kontsumoa arrunt bilakatzea, argibide eza sakonarekin daude nahasiak.

Hasteko, aisiako esteroide anabolizanteen kontsumitzaileari hurreratzeko biderik hoberena Internet izan zen, bertan subsantzia hauei buruzko milaka webgune miatu zitezkeelako. Internet kontsumitzaileen bizimodu eta irrikeri buruzko detaile mordoa ezagutzea ahalbidetzen du. Honen bitartez egindako salerosketak ohikoak dira eta kontrolperik gabe dihardun. Gainera, kontsumitzaileek gaiari buruzko foroetan argibide ugari ematen dituzte, behintzat zenbait topikoei eta iruzurrei aurre eginez.

Era berean, kanpoko lana prestatzeko, zenbait gimnasioetan sartzea erabaki nuen, bai eta funtsezko berriemaile talde zabalarekin hitzegin, segurtasun saileko agenteak, botikariak, disko atezainak, kulturistak, substantzia hauen zale ohiak, medikuak, entrenatzaileak, estetika ebakuntzetan adituak, zale ohien neskalagunak, eta abar barne. Berauen adierazpenak oinarritzat hartuz, aisiako esteroide anabolizanteen kontsumitzaileen profilen irudi argia lortu nuen, berezitasunak, joerak eta beste garrantzizko aldeak igarriz. Horrek fenomenoaren tamaina atzematen eta nire ikerketa profila egokietan bideratzen lagundu ninduen, hondoren egiteke zegoen kanpoko lana prestatzeko aurkibide bezala erabiliz.

Elkarrizketaren gidoia, ikusketa bibliografikoan errotutako analisiaren oinarritzko dimentsioak jarraituz prestatu zen; datu soziodemografikoak, esteroide anabolizanteen kontsumo patrioak, kontsumitzen duen lagunak eskura dituen argibideak, kontsumoak eragindako arriskuak, salerosketa sareak, gimnasioak, irudi fisikoa, aspektu soziologikoak eta eremu ideologikoa.

II. Azterketa kualitatiboa: hartzeko bideak, beste substantziekin konbinaketa, arriskuaren antzematea, kontsumorako motibazioa eta gimnasioa behartzen duen kontestu gisa.

Jarraitzeko, aisiako esteroide anabolizanteen kontsumitzailearen azterketa kualitatiboan barreiatuko gara. Elkarrizketatutako gehienak esteroide anabolizanteen kontsumoaren loratzea publiko zabalari dagokionez igaro hamarkadan kokatzearekin bat datoz. Azpimarragarria den beste aspektu bat Ameriketako Estatu Batuek, esteroide anabolizanteen herrikitzean eta hedakuntzan, izan zuten garrantzia da, estereotipoen, modelo kulturalen eta baloreen zabalkuntzan duten paper hegemonikoagatik.

Hartzeko bideei eta erabileraren maiztasunari dagokionean, nagusi da bide parenterala kontsumo zikloetan oinarrituta. Zikloen luzera 6 eta 10 aste artekoa izan ohi da, bataz besteko asteroko lau dosiekin, askotan esteroide anabolizante mota ezberdinak konbinatuz. Azpimarratzekoa da, terapeutikoa izango litzatekeen dosi bat baino 100 aldiz handiagoa dena hartzen dutela. Substantziarik arruntenen artean: Winstrol (estanozolol), Deca-Durabolin (nandrolona), Primobolan (testosterona) eta Equipoise (boldenona). Hala eta guztiz ere, kontutan hartzekoa da stripper-en eta gogo-en moduko aldikako kontsumitzaileak, kontxumo ezberdina egiten dutela, eta ez dutela hainbeste injektatzen ezta horren denbora luzez. Izan ere, urtean zehar bi ziklo egiten duena, kontsumitzailearen profilarik harruntena da. Aisiako kontsumitzaileek 30-35 urteko adinera iristen direnean, pertsonalki haztearen prozesuarekin bat, kontsumoak erabat uzten dituzte

Kontsumitzaileak, esteroide anabolizanteen kontsumoarekin batera, eta momento berean beste substantziaz eta osagarriez baliatzen dira: proteinak, aminoazidoak, karbohidratoak eta gantz erre-arazleak. Kontsumitzaile batzuek egun bakoitzean behar dena baino 300 aldiz gehiago hartu dezakete zenbaitetan. Hala eta guztiz, esteroide anabolizanteekin egin daitekeen nahasketarik arriskutsuena, hazteko hormonarekin eta intsulinarekin egindakoa da. Gehiegikeriako beste droga baten antzera, eragin sekundarioak ezezagunak dira edo gutxiesten dira. Esteroide anabolizanteak medikamentuak direnez, horren analogiak kontsumoa justifikatzeko eta arriskugarritasuna beheartzeko balio du.

Arriskuaren pertzeptzio baxuak eta, organismoarengan jazo daitezkeen eragin sekundarioen ezezagutzak edo gutxiesteak, erabateko neurri falta eragiten du. Organismo bakoitzak dosi ezberdin bat behar duela eta hura zein den jakiteko baliagarri den modu bakarra bakoitzak duen esperientzia dela, oso hedatuta dagoen sinismena da. Gibelego eta giltzurruneko gaitzak, ginekomastia, disfuntzio sexualak, inpotentzia, lesioak artikulazioetan, depresioa, arazo psikiatrikoak, bortizkeria atalak eta abar luzea, eragin sekundarioetan ohikoenak, eta laginaren gehienek jasan dituztenak dira.

Kontsumorako arrazoen artean, kontsumitzaileak bere gertuko ingurukoengandik jasotzen dituzten mezuak, haien irudia atseginez begiratu edo berea okerrera egin duela aurpegiratu, zikloen mantentzean eta errepikapenean funtsezko papera dute. Bourdieu jarraituz, gorputza natura sakonenaren adierazpen naturalena bezala ikusten da. Hortaz, nolabaiteko irudi fisikoari emandako gehiegizko garrantzia, bai eta hura mantentzen jarraitzeko grina eta kontrako sexuari gustatzeko gura, nagusietan adierazitako motibazio batzuk dira.

Egiaztatu dugunez, lagin ia osoak, gehienetan norberak bere burua gizen edo mehe ikusten duen pertzeptzioa sorburu duela eta horri autoestimua baxua erantsita, ez du bere gorputza atsegin. Era berean, eta berriz ere Bourdieu bere *La Distinction* (1988) lanarekin jarraituz, gorputz giharretsua izatea ez da garrantzizkoena daukan pertsonarentzat, baizik eta geroz eta gehiago erreferentziatzen duen ingurukoentzat. Horrela izanik, esteroide anabolizanteen kontsumorako arrazoirik funtsezkoena, bere hastapenetik indar fisikoaren areagotzea izan da, "sendo egon" espresioaz ezagutzen dena, edo gazteleraz "*estar fuerte*".

Aisiako esteroide anabolizanteen artean, medikuek gai honen inguruan duten ezagutzari dagokionean, ez dute sinesgarritasunik. Areago, lagunek, interneteko webguneek edo substantzien salerosleek baino konfiantza urriagoa dute medikuek.

Aztertutako dimentsio guztietan gimnasioa zeharkako gaia bezala agertzen da. Ziurta genezake, Durkheim parafraseatuz, erlijioarekiko eliza den moduan esteroide anabolizanteekiko gimnasioa dela. Loïc Wacquant-ek idatzi zuen moduan, gizonezkoen baloreak goibalaratzeko eta gazteek identitate beharrak betetzeko lekua da, berezi sentitzeko, ezer egiten ez dutenetaz ezberdintzeko eta anonimotatik hala-

nolakotasunetik edo auxo xumeetan dagoen arduragabekeriatik ateratzen saiatzeko lekua.

Anabolizanteen salerosketa gune nagusia, beste motatako droga ilegalak salerosten duen merkatu beltzean kokatzen da, gaur egun Interneten garrantzia goranzkoarekin, eta zenbaitetan (geroz eta gehiago botikek duten presio polizialarengatik) albaitaritza mundutik datorren salerosketa ilegalarekin. Egoera honek falsifikazio (*fakes*)-en hazkunde esponentziala ahalbidetu du, produktuaren prezioa igoera erabatekoa, substantzien faltsutzea eta *underground* laborategiak ugaltzea eraginez.

III. Aisiako esteroide anabolizanteen kontsumitzailearen profil soziologikoa.

Aitzinean kontsumitzailearen profila definituko dugu. Gazte bati buruz ari gara, bere hezkuntza maila baxuagatik bereizten dena, lan munduan ezarpen ezegonkorrekin eta -gaurko egoeraz larriagotuta- epe luzerako segurtasun ezarekin. Bizilekuari dagokionez, elkarrizketatutako gehienak bakarrik bizi dira. Ogibidez, sarrienak gaueko aisiako munduarekin lotutakoak dira, baita segurtasun pribatuarekin (batez ere diskoetako atezainak). Segurtasun pribatuko zaindariak ez lirateke urrun egongo, polizia, guardia zibila, suhiltzailea eta militarren artean geroz eta kontsumo handiagoa somatzen den artean. Gimnasioetako monitore asko ohiko kontsumitzaileak direla ahaztu gabe, horietako batzuk kulturismo entrenatzaileak izanik. Denbora librean ahalbidetzea eta sari ekonomikoa, ogibidea hautatzeko oinarrizko irizpideak dira.

Elikadurari gorenko garrantzia atxikitzen zaio. Itxurako «dieta» baten aitziaiarekin, gehienetan, kontsumitzaileak neurrigabeko janak burutzen ditu - otorduen artean bizpau ordu baino ez dira igarotzen-. Patroi hau ez da, ez aditu baten ikuskapenpean, ezta etengabe suertatzen. Proteina eta karbohidrato ugariak otorduetan sartzea mugatzen dira. Dieten segimendu zorrotzak ere erlazio sozialetan dauka eragina, bai familiarekin, baita bikotearekin, kontu horrekin kontsumitzaile askok bere biziera sozialak mugatzen baitituzte.

Afizioen inguruan, esteroide anabolizanteen kontsumitzaileak sarritan joaten dira diskoetara. Gorputz estetikak, janzkerak eta musika estiloak sarritan gustukoak duten disko motarekin dauka zerikusia. Festa aretoak, hondartzekin batera, gogokoak dituzten lekuak dira. Aisiako kontsumitzaileen eguneroko bizitzan musikak leku garrantzitsua dauka, musika estiloetan bere gogokoena disko musika izanik (*tecno, house, progressive* eta *dance*), eta neurri txikiago batean *hardcore, rap* edo *hip hop*.

Telebistako gustoei dagokionean filmarik gogokoak akzio filmak, gudakoak, berebileren buruzkoak eta arte martzialei buruzkoak dira. Esanguratsua da ere, askok txikitik ikusten zituzten, gorputza gihartsua agertzen zuten eta indar fisikoan oinarritutako botereak zituzten, superheroien marrazki bizidunen eragina azpimarratzen dutela.

Honaino iritsitakoan, irakurzaiei buruz galdetutakoan, irakurketarekin lotutako kultura jardunen esparruan iritsi ginen lehenbiziko ziurtapena ohituraren erabateko eza izan zen, batez ere gazteen artean. Pentsa zitekeen irakurmena ez lantzeak beren *Victor Agulló Calatayud. Esteroide anabolizanteak: Goi mailako kirol alorretik gimnasioetara.*

pentsamendo eta arrazoiketa kritikoa ekidin lezakeela, esteroide anabolizanteen kontsumitzaileek garatzen ez dituzten trebetasunak. Edonola dela ere, noizpaiteko irakurketak argi eta garbi ezberdintzen diren bi ardatzetan kokatzen dira. Alde batetik, muskulazioarekin eta gimnasioaren munduarekin zerikusia duten aldizkariak, eta beste aldetik, motorraren munduarekin zerikusia dutenak.

Halaxe, motorraren munduarekin eta abiadurarekin zerikusia duen guztia, laginaren parte handi bat jarraitzaile aitortzen den alorra da. Berebil deportiboak dira preziatuenak eta elkarrizketatutako askok horien modelo baten jabe dira, -edo horren irrika dute-. Hala eta guztiz ere, gidatzen duten artean batzuek joera agresiboak aitortzen dituzte. Gogoratzekoa da Trafikoko Zuzendaritza Generalak (DGT)-k Espainian ez dituela esteroide anabolizanteak substantzien detekziorako laginen baitan sartzen.

Duda barik gorputz-itxura da zaletasunik landuena. Featherstoneren arabera, gorputza geroz eta handiagoa den eginkizun baten muin bilakatu da (soinketa, dieta, makillajea, ebakuntza, estetika) eta gorputza berrikuspenari, aldaketari eta bilakaerari irekitako norberaren zati bezala ikusteko joera dago. Aintzinerak ikus daiteke laginak gorputza giharretsu batetan oinarrituta, nolabaiteko irudi fisikoa agertzeko irrikaz, janzkera hertsia, UVA izpien ohiko erabilera, askotan urte osoan zehar egindako sarritako depilazioa eta nolabaiteko gorputz apaingarrien (piercing eta tatuaiak) erabilera osatzen duten gorputz estetika hautesten duela zihurta daiteke. Batzuek konpainiazko animaliak dituzte, batez ere pitbull-en edo doberman-en antzeko arriskugarri izan daitezkeen arrazako zakurrak.

IV. Ondoriak

Amaitzeko, iritsi garen ondorioak abiapuntu izan daitezke erakundeak neurri handi batean ezkutuan dagoen eta lehenbailehen heldu beharreko problematikaz kontzientziatzeko.

Zentzu horretan, gazteen esteroide anabolizanteen erabilerak eta gehiegikeriak beste gehigikerizko drogen kontsumo patroietakoak erakusten dituztela, agerian geratzen den lehen aspektua da. Hori agerian geratzen da elkarrizketak esteroide anabolizanteen kontsumitzaileek erakusten duten dependentzia edo abstinentzia sindromea edo dosien neurketan kontrol falta bezalako funtsezko aspektuen inguruan garatzen diren eina, horri arriskuaren pertzepzio txikia gehituz. Gainera emaitza hauek, matxismotik oso gertu geratzen diren indarrean oinarritutako gorputzaren irudi eta maskulinitatearen estereotipo maskulinoaren pertzepzio onikusiarengatik, sozialki indartu egiten dira.

Ikerketa honen hasieran planteatzen zen bezala, anabolizanteen kontsumoak kirol esparrua gairatu du eta aisiako helburuarekin erlazionatutako kontsumo patroietara hurreratu zaio. Nahiz eta anabolizanteen erabilera gimnasioetako munduari atxikia agertzen den, kontsumitzaile denak bertan aurkitzen baitira, ziklo bat hasteko motibazioek ez diote kirol helburuei erantzuten, nolabaiteko irudi fisikoa ahalik eta denbora motzenez lortzeko grinari baizik. Orokorrean, martxan irtetzeari jarraitzen dion moda bat da, baina drogen kontsumoarekin atxikitutako *continuum* baten parte izanik.

Hala izanik, gimnasioa beharrezko kontestu bat bilakatzen da, non eta anabolizanteei buruzko argibideak erraz eta etengabe, baina zehaztasun gabe, isurtzen diren. Neurri batean, badirudi nolabaiteko kanon estetikoak, behin naturalak direla barneratuta, lortzeko dagoen bide bakarra gimnasioara joatea litzatekela. Anabolizanteen kontsumoak nolabaiteko irudi fisikoa antzematen duen, gorputza gurtzen duen nolabaiteko moda bati erantzuten dio, neurri handi batean hedabideek eta publizitateak betetzen duten eginkizunagatik.

Hedonismoa, ahalegin minimoko legea eta berehalakotasuna, gailentzen diren testuinguru soziokultural batean, esteroide anabolizanteen kontsumitzaileak aste gutxitan lortzen ditu bi edo hiru urtez gimnasioara bertaratzen eta entrenatzen lortuko lituzkeen emaitzak. Beraz, garatutako substantziarekiko dependentzia erlazionatuago

Victor Agulló Calatayud. Esteroide anabolizanteak: Goi mailako kirol alorretik gimnasioetara.

legoke baliabide horrekin lortutako efektuekin, substantziarekin berarekin baino. Dependentsiak hortaz ez luke horren izaera fisikorik izango, baizik eta psikologikoa, batez ere substantziaren efektuak sumatzearekin lotutakoa, kasu honetan norbere gorputzaren irudian.

Horrela izanik, ez da lana erraza izan esteroide anabolizanteen kontsumitzaile gaztearen profila ezagutzea. Lehendabizi nabarmendu beharrekoa, ikerketa kualitatibo batean parte hartzearen aurka dagoen gaztea dela, eta horregatik gorputza gihartsua lortzeko erabilitako metodoa zalantzan jartzen duen edo argitu dezakeen edonolako elkarrizketari ihes egiten dio.

Era berean, interesgarria izango litzatekeen jorrapuntua gimnasioetarako kode deontologikoaren garapena da. Azpimarratu beharreko beste faktore bat, eta etorkizunera begira zuzentzeko, Espainia eta Valentzia esparruei buruzko luzaroko ikerketen falta da, Estatu Batuetan eta Eskandinabian gertatzen ez den bezala, non eta esteroide anabolizanteen gehiegizko kontsumoak eragiten dituzten hainbat efektu psikiko eta fisiko 40 urte adinetik aurrera agertzen direla egiaztatu dute.

Esteroide anabolizantei buruzko aurkeztutako azken prebalentziek, anfetaminaren, heroinaren, crack-aren edo beste motako aluzinogenoen antzeko beste larregiko drogen aurretik kokatzen dituzte, -fenomenoak daukan garrantziaren eta gutxiesten ari denaren eredu-. Halaber, oso aproposa litzateke, gazteen artean aisiako esteroide anabolizanteen kontsumoan krisi ekonomikoak izan duen benetako eragina zundatzeko, Espainiako Plan Nacional sobre Drogas (PND) edo European Monitoring Centre for Drugs and Drug Addiction (EMCDDA) bezalako instituzioek ere, Ameriketako Estatu Batuetako National Institute on Drug Abuse (NIDA)-k 1989az geroztik egiten duen antzera, bere azterketetan esteroide anabolizanteak kontutan hartuko balituzte. Beste era batera esanda, oso interesgarria izango litzateke populazio orokorrean eta eskolan, baita tartean izan daitezkeen beste talde sozialetan, aisiako droga bezala esteroide anabolizanteen kontsumoaren ikerketa epidemiologikoak jorratzea, edo gutxienez, erreferentziazko erakundeek egindako inkestetan aztertzeko beste substantzia bat bezala kontutan hartzea.

Aurrerantzean adierazi dezakegu, aisiako esteroide anabolizanteen kontsumitzailea orokorrean, mutila dela, gaztea, 17 eta 27 tarteko adinekoa, erdiko klaseko giza-maila edo erdi-baxukoa, derrigorrezko hezkuntzatik gorakoak ez diren ikasketa mailarekin,

ezkongabea, bere gurasoekin bizi dela, eta, printzipioz, nolabaiteko baliabide ekonomikoa daukala, nahiz eta egun bizi garen egoerarekin, murriztuz doan. Ikerkuntza literatura internazionalak, eskola-porrota eta hezkuntzarako arduragabekeria gazteen artean esteroide anabolizanteen kontsumitzeko garaian arrisku faktore argi bezala antzeman ditu.

Haien ideologia politikoari dagokionez, apolitiko bezala definitzen dute bere burua edo zuzenean politika osatzen duena edo ingurukoa interesbakoak dira haientzat. Beste batzuk kontserbadore bezala azaltzen dira eta, kasu gutxi batzuetan ere, eskuin muturretik gertu. Ingurumenari, langabeziari edo inmigrazioari buruz dituzten iritziak interesbakoak, homofobiaren eta arrazakeriaren ondo-ondoko erretorikan kokatzen dira. Klase politikoak ez dauka sinesgarritasunik eta estatuak bizitzen duen egoeraren erantzukizuna dauka.

Laburtzeko, gazteen artean aisiako esteroide anabolizanteen kontsumo patroiak ikertzen jarraitu behar da arriskupeko zenbait populazioetan bereziki eraginez, ezagutza eta substantzia hauei buruzko ikerketak zabaltzeko, gimnasioen, praktikante aretoen edo segurtasun enpresen antzerako arriskuko lekuak bezala atzemandako kontestuetan, ekintza prebentiboak diseinatu aurretik, gazteen sozializazioko beste gune batzuk ere kontutan hartuz, adibidez: eskolak, diskotekak, kirol elkarteak, unibertsitateak, polikiroldegiak edo gaztetxeak.

Funtsezkoa izango den beste aspektu bat, beste lurraldeetan eta beste kontestu sozioekonomiko eta kulturaletan ematen diren berezitasun soziodemografikoak, ideologikoak, lanekoak eta, aisiako esteroide anabolizanteen kontsumitzaileen bizimoldeei, kultura ohiturei eta gustu estetikoari atxikitutakoak zehaztazun handiagoz ezagutzea eta egiaztatzea izango da.